

Beñat Etxebarria igorretarra kontratau dau Athleticek

10. orrialdea

Munduko gazteak Lemoan

Lemoatx 37 memoria historikoa errekeretako herri batzordeak antolatuta, auzolandegi bi egongo dira uda honetan Lemoatxen, bata trintxerak eta bestea ermitea errekeretako. Taiwan, Japonia, Errusia eta Alemaniatik etorritako gazteak, besteak beste, egingo ditue lanok. Hamabost egunetako txanda bi izango dira. **13. orrialdea**



Arratiako II. Rallya eta auto erakustaldia hilaren 13an

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

189

2013ko garagarriaren 1a
hamabostekaria
www.begitu.org

Kontzertuak eta erromeriak Lemoako saninazioetan

Kontzertu interesgarriak antolatu ditue Lemoan saninazioetarako Elizondon. Hiru gautan zortzi taldek zein bakarlarik eskeiniko dabez euren emonaldiak.

Holan, hile honen 30ean, martitzenean Aizu! Taldeak, Exaixuk eta Oxabi erromeria taldeak joko dabe hamaiketarik aurrera. Lehenengo biak, omenezko taldeak dira, Aizu! Kortaturen omenezkoa eta Exaixuk Exkixu taldearen kantak gogorazoko ditu. 80 eta 90. hamarkadetako soinuak.

Abuztuaren 2an, barriz, 23:30etik aurrera, Anje Duhalde izango dogu Arratian. Lapurtarra 1970eko hamarkadan hasi zan eszenalekuetan kantetan eta ez da gelditu. Hasikeran Errobi taldeagaz, bakarka edo Akelarre taldeagaz, 40 urte baino gehiago daroa Euskal Herriko

jaiak musikea ipinten.

Hurrengo gauan, abuztuak 3, Malsujeto, Gatibu eta Tri-kizio taldeen txanda da. 23:00etan Valentziako Malsujeto taldeak bere "Paraiso Infierno" lana aurkeztuko dau. Gero, Gatibu bizkaieraz kantetan dauan rock taldeak eta azkenik Tri-kiziok rock, folk eta ska soinuez beteko dabe gaua.

Musika eskeintza garrantzitsua bai, baina ez hori bakarrik: kuadrilen arteko norgehiagokak, gastronomia txapelketak, kirolak eta Lemoako jaietan bakarrik egiten dan Ibaizabaletik baltzen jeitsiereak be badaukie euren tarte Lemoako jaietako egitarauan. **5. orrialdea**



Igazko Lemoako San Inazio jaietako txupina.

ARRATIA

Jaigiro tradizionala ermitetan



Auzuneetako jaiak Areatzako Santo Tomas ermitako jaiak hasiko dira hile honetan. San Kristobal eguna hilaren 10ean da, Santa Mari-na eta San Segismundo hilaren 18an, Madalenak 22an, Santiago eguna 25ean, San Inazio 31n eta San Adrian abuztuaren 1ean. Izen honeetako ermitetan ospatuko dabez jai honek. **7. orrialdea**

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak 40 urte bete ditu aurten

Ganzabal Mendi Taldeak Lemoako jaietako pregoia irakurriko dau. Taldeak 40 urte bete ditu aurten eta etorkizunari aurrez aurre begiratuten deutso ekarriko dituan erronkai aurre egiteko prest. Sare sozialetan dagoz eta Arratiako taldeen arteko alkarlana beharrezkotzat jotzen dabe Ganzabalekoak gitxieneko koordinazio bat izateko. Taldeak 700 bazkide inguru ditu. **8. eta 9. orrialdeak**



BEDIA

Alfus eta Incoesako beharginak erakundeetara jo dabe

Alfus-FCC eta Incoesa Bediako enpresetako beharginak laguntzea eskatu deutsee Batzar Nagusiai, Legebiltzarrari eta Mankomunitateari lan gatazka honek konpondu ahal izateko. Bediatik Gasteizera oinez joan ziran beharginak Legebiltzarrera adierazpen instituzional bat errotan. PPK izan ezik, beste partidu guztiak sinatu eben adierazpen hori. **6. orrialdea**



IGTIE

FRACKING EZ, EZ HEMEN EZ INON

Energia ereduaren inguruko ez-tabaida indartuz doa aspaldian. Ameriketako Estatu Batuetako Energiaren Informazio Agentziak 2010ean onartu eban petrolio merkearen goren aldia amaitu dala, eta hemendik aurrera erreserben etenbako dekadentzia murgildu garala. Kontestu honetan azaldu da fracking izenez ezagutzen den teknika, zeinak ur kantitate handiak erabiliz (azido sulfurikoz eta beste likido ezezagun batzuek nahastuta) presino altuan lur-azpia arrakaltzen dauan, bertan (arbel geruzan barrietuta) dagoan gasa aterateko. Ez dogu oraingo honetan teknikearen ondorioez berba egin gura (ez geunke irakurlea nazkatu gura), informazio gehiagorako ikusi

honako film hau: *Gasland* (edo *Zelan emon sua urari?*).

Zergaitik dakarguz kontu honek atal honetara? Baserritarrek garan heinean badogulako zer esanik natur-baliabideen erabilereaz, amalurra dalako gure hornitzaile nagusia, gure ganaduaren egardia eta barazkien beharrak akuiferoak asetzen dituelako. Baina batez be, personak garan heinean, biziraupen senak bultzatzen gaitualako. Hiru planeta bagenduz be...

EEE-k (Energiaren Euskal Erakundeak) froga sismikoak hasi ditu Arratian (SAIA baimenaren barnean), eta esaten dabe ez dabela frackingik egingo. Zergaitik ez deutsegu sinesten? Hona hiru arrazoi:

- Pasa dan zezeilean Eusko Jaur-

laritzak ez eban onartu frackinga debekatzeko Herritarren Lege Ekinena. Ikusi maiatzean legebiltzarreko Ingurumen Batzordeko agerrialdia: <http://frackingzaraba.org/eu/2013/06/comparencia-de-fracking-ez-en-el-parlamento/> - EEE erakunde publikoak Shale Gas España plataformearen parte da (Shale Gas: arbel gasa). Hau frackinga erabiltzearen alde dagoan enpresez osotutako erakundea da. Lotsa barik esaten dabe: "frackinga segurua da, mito asko dago honen kontura". Ikusi honako alkarrizketa hau (Shale Gas Españaren bozeramaileak oparitzen deuskun altxorra): http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/energia_y_ciencia/2013/06/01/216881.php - "Fracking" berbeak ("hausturea" esan gura dau) hartu dauan usain txarra dala-eta, terminologia gudu

baten sartu dira jadanik. Orain ez dabe fracking berbea erabili gura eta "hatxari masajea" emoteaz egiten dabe berba. Kontuz, izan mesfidati, gizarte mobimentua lokarrarazo gura dabe. Irakurri honako artikulua: <http://www.argaia.com/albiste/frackinga-momentu-egokiaren-zain>

com/albiste/frackinga-momentu-egokiaren-zain

Amaitzeko, herritar guztiak konbidau gura geunke alderdikeriak alde batera itxi eta gure planetaren defentsan konprometidutera, bakarria dalako.



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdia

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00. S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Garagarilaren 1etik 7ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22

22:00-09:00 Melero. Amorebieta.

Garagarilaren 8tik 14ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00-09:00 Sarasketa. Amorebieta.

Garagarilaren 15etik 21era

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00-09:00. Iruarizaga. Amorebieta.

Garagarilaren 22tik 28ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrearen enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50

22:00-09:00 Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta.

Garagarilaren 29tik abuztuaren 4ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00-09:00 Guarrotxena. Amorebieta.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Clara Luja Azpiri eta Irati Urien.

Maketazino: Inigo Iruarizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendieta eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Alderdiak
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Eskolea txiki gelditu jaku, eta beharrean gabiz arazoa konpontzeko

Ezaguna da egoera, Igorreko eskolea txiki gelditu jaku, eta herriko umeak arazoak izan ahal dabek eskolan lekua izateko. Gai honen inguruan zezeiletik daroagu beharrean Udaletik, ikastetxea eta guraso alkarreagaz batera; arazoak, inplikautako eragileak alkarlanean konpondu behar dira uste dogulako. Bide honek Udala, guraso alkarrea eta ikastetxearen zuzendaritzegaz proposamen bateratu eta adostua osatzera eroan gaitu eta Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza Sailari bidali deusagu. Hezkuntza Sailagaz hainbat batzar euki doguz gaiaren inguruan eta aurrerantzean be eukiko doguz.

Udala, ikastetxea eta guraso alkarrea Hezkuntza Sailaren aurrean alkarlanean aritu diran bitartean, herriko eragileren bat "arazoa euren konpondu dabela" esanez atera da plazara, zuzena ez zan informazio bat emonaz eta eskolarean alde martxan egoan beharra oztapatuz, ez dakigu zein interesen defentsan.

Eskolako leku faltearen arazoa ez dago konponduta, eta orain arte moduan, beharrean jarraituko

dogu behin betiko konpondu daiten. Beste eragileen partetik, erantzukizunez jokatzeari eskertuko geunke, zuzena ez dan informazioa saihestuz. Herritarrek horrenbeste merezidu dabelakoan gagoz.

BEINAT ANZOLA
IGORREKO ALKATEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:
Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEHIOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Barren



Berba honen esangurea beheko aldea da: zeozer, goragoko erreferentzia batez alderatuta, beherago dagoala esan gura dau. Barrenkale da Goienkale baino beherago dagoan kalea. Fraka-barrenak edo gona-barrenak erropa horreen behealdeak dira. Batuaz erabilten dan barren berbeak oster, barru esan gura dau. Barrenetik urten, behetik gora egitea litzateke; eta barnetik atera bihotzetik edo barru-barrutik urtetea.

ERETXIA

Puntu eus: euskal komunitatea sarean



JOXE ROJAS

Topaguneako Hedabide
Sailaren arduraduna

Honezkerok hant eta heman ikusiko zenduen, baina albista benetan da garrantzitsua eta merezidu dau haren inguruan apur bat luzatzea. ICANN nazioarteko erakundeak interneteko .eus domeinua sortzeako eskaria onartu dau eta, azken teknizismoak bete ondoren, 2014ko aprietik aurrera ikusi ahal izango doguz .eus 'abizena' daroen lehenengo webguneak.

Prozesua ez da izan ez erreza ezta azkarra be. Sei urte igaro dira PuntuEus alkarrea sortu zanetik, eta harrezkerotik makinatxo bat bilera, txosten eta bestelako lan egin behar izan ditue alkarreko kidea, eta batez be prozesu guztia dinamizetan ibili dan Iratxe Esnaolak. Hasteko eta behin, beraz, zorionak eta eskerrak emon behar jakiez alkarreari zein Iratxe berari egindako lan guztiagaitik... eta oraindino egiteko daukiena-gaitik be bai.

Zergaitik dan hain garrantzitsua kontu hau? .eus domeinua tresna baliagarria izango da euskal komunitatea sarean identifiketako. Zelanbait esateko 'bandera' bat emongo deusku domeinuak euskaldunoi, hizkuntza eta kultureagaz soilik lotutakoa, beste inongo inplikazio geografiko edo administratibo barik. BEGITUREN webgunea begitu.eus izango da -holan gura badau behintzat-, baita euskalerrirratia.eus, garazikoikastola.eus, bartzelonakoeuskaletxea.eus edo boisekoeuskaletxea.eus.

Domeinu barria aukera parebakoa da euskerearentzako gune hegemoniko barri bat irabazteko. Eta ez edozelangoa: ez gune hegemoniko bat euskerearen eremu tradizional eta -barkaistazue gordintasuna- folklorikoagaz lotutakoa, oso bestelakoa baino. .EUS euskerearen domeinua izatea inoz ez bezalako aukerea da

euskerea eta euskal kultura esparru 'nostalgikoagaz' baino, etorkizunerako proiektino daukan esparru batez lotzeako. Euskerea eta euskaldunoi perspektiba 'futurista' bat emoteko.

Pedagogia lana ondo egin ezker, gainera, uste dot erre lortu daitekela gitxienean adostasun bat euskaldun zein ez euskaldunen artean euskereak .eus domeinuetan izan beharreko presentzia. Danok onartu ezker interneten '.eus' izateko edukia "gitxienez euskeraz" izan behar doguzala, domeinua atakia izan daiteke orain arte gugaz bat be kezkarik ez eben hainbatek ahalgina egin eta euskerara hurbiltzeko. Katalanai halan gertatu jakien, ikusi esaterako microsoft.cat edo nestle.cat webguneak.

Hori bai: hori lortzeako lan piloa egin beharko da batetik eta bestetik, eta gure herri honetan oso ohituta ez gagozan moduan beharbada: bata zein bestearan atea joz, asertibidatetik baina diskrezinaz eta eskuzabaltasunez, halan behar dauanari laguntzea be eskeiniz... erronka handia, nire ustez, baina baita eder-ederra be.

LUMATUTEN**MAITE ARTABE****Raymond
Carver
berriidatziz
egonezinetik**

Egonezina nabari dot ertzainen kotxea nire herrian bueltaka ikusita. Egonezina, injekzioen orratza niri begira badago. Egonezina, krisiak nire alabengan izango dauan eraginaz pentsau orduko. Egonezina, itoten dauan maitasunagaz. Egonezina, Frantziako homosexualen ezkontzaren kontrako manifestazioakaz. Egonezina, baseri inguruko txakur solteak "ez dau ezer eiten" dinostenean. Egonezina, ama bigilante perfektuegien aurrean. Egonezina, zaurien bistan. Egonezina, gizon errespetu bakoen ondoan egonda. Egonezina, istripuren bat medio ez zarala etxera bueltauko burutik pasau ezker. Egonezina, bere burua bizitzaren defendatzaile izentatzen dabenen aurrean. Egonezina, gauean bakarrik nagoala ateari giltza emon ezik. Egonezina, PPren abortu legearen atzerakadea dala-eta. Egonezina, sugeak Natura telebista-katean ikusita. Egonezina, PPren abortu legearen atzerakadea dala-ta. A! hori esan dot.

ZERTZEAN**IKER YURREBASO**

Haizeak basoko zuhaitzen adarren artetik bidea irekitzen du, haize leuna da, eta landa gunera iristean garia dantzarazten du, samur. Ilargia ikusten da laino artean, eta berari begira neskata txiki bat dago, sutondoan eserita, lurrean. Neskatak ile beltzarana dauka, eta orrazi bat eskuetan. Bere ahizparen esku trebeak ilekorda luze eta sendo bat ari dira osatzen, eta barre egiten dute ilekordaren luzera ikusten dutenean. Haizeak ahizpa nagusiaren ile askea astintzen du, eta leihotik ateratzen da, beriz, basora bueltatzeko".

Baso Ahaztuak**Irudia: Maite Yurrebaso.**

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Opor eta afizinoen sasoi heldu jaku eta zuotako askok aurreko urteotan argi ibi dozuenez, zaletasun horreen artean argazkiak egitea daukatzue. Argazkirik onenak BEGITUN argitaratzeko aukerea daukatzue, udako argazki lehiaketeari esker. Gainera, astegoi bat landetxe baten izango dau saritzat epaimahaia onenatzat jotzen dauan argazkiaren egileak.

Argazki lehiaketearen oinarriak:

Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.

1. Gaia: Argazkiak 2013ko oporrekaz edota bajeakaz zerikusia izan behar dabe.
 2. Lanen ezaugarriak: Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
 3. Nora bialdu: Argazkiak begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira.
 4. Aurkezteko epea: 2013ko garagarilaren 1etik urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok. Abuztuko eta urri lehenengoko zenbakietan argitaratuko dira batzuk. Dana dala, HORREK EZ DAU ESAN GURA ARGITARATUTAKO HORREK DIRALA IRABAZLEAK.
 5. Epaimahaia: BEGITU Aldizkari erredakzino taldeak osotuko dau.
 6. Epaia: Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenegun argitaratuko da aldizkari honetan.
 7. Saria: Persona birentzako astegoi bat Nafarroako landetxe baten.
 8. Oharra: Lehiaketa honetan parte hartzean dabena oinarri honek onartzen dituela esan gura dau.
- Zuen argazkien zain gagoz!



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa
hagin klinika
Marina Uriagotia Aldekoa
Odontologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1, beheko
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zurbela 101
R.F.S. 21/06

Ametzola Landetxea
Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

LEMOA

Saninazioak jai tematikoak



Jaietako kartel irabazlea. Eder eta Ibai Aranaren kartela.

Garagarriaren amaieran eta abuztuaren hasieran, sei jai egun antolatu dabez lemoaztarrek, bakotxa gai baten inguruan. Txupina hilaren 30ean, arrastiko zazpiretan botata emongo deutsie hasikerea Ganzabal Mendi Taldekoak aurtengo saninazioai.

Erredakzioa

Mozorro eguna izango da hori eta mozorro lehiaketan parte hartuko daben guztiak kalejiran urtengo dira. Hurrengo egunaren gaia, Euskal Jaia izango da eta egun horretan euskal jantzak hartuko dabe protagonismoa. Eguena, kirol eguna eta barikua play-back eguna. Zapatua gastronomia eta gau pasa eguna izango da eta gau horretan, Malsujeto, Gatibu eta Triki-zio taldeen kontzertuak musikaz beteko dabe gaua. Jaiari amaiera alkartasun egunak ipiniko deutso.

Argentinatik Euskal Herrira

Aurten be, urtero lez, Hator Hona proiektua martxan ipiniko da, baina euskaldunak Argentinara joan beharrean, orain dala bost urte lez eurak datoz gurera eta Lemoako jaietan egongo dira. Garagarriaren 11n helduko dira

eta hilabetean zehar herriz herri ibiliko dira. Tartean, saninazioetan, Lemoa bisitatu dabe eta jantza ikuskizun bat eskeiniko dabe. Jantza argentinarrak eta euskaldunak konbinetan dituan ikuskizuna hain zuzen be.

Garagarriak 29, astelehena

19:00etan, Futbito Txapelketearen finalaurrekoak.

Garagarriak 30, martitzena

Mozorro eguna. Gaia: jolasak
18:30etan, jaietako kartelen erakusketea udaletxeko plazan.

19:00etan, txupina eta jaietako kartel lehiaketaren sari banaketea udaletxeko plazan.

21:00etan, kuadrilen afaria kiroldegian.

22:00etan, disko karaokea kiroldegian.

23:00etan, kontzertuak Elizondon: Aizu! (Kortaturen omenez);

Exaixu (Exkixuren omenez) eta erromeria Oxabi taldeagaz.

Garagarriak 31, eguztena

Euskal Jaia San Inazio plazan
11:30etan, XVI. Artisautza Azokea Atxeta taberna ondoko plazan.

12:30etan, mezea San Inazioan.

13:15etan, Durundi Barri Dantza Taldea eta Lemoako Abesbatzaren ekitaldia San Inazio plazan. Argentinako Zahar Alai jantza taldea.

18:00etan, Ugel Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

18:30etan, Ugel Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

18:30etan, Sun magoa, umeentzako ikuskizuna San Inazio plazan.

19:00etan, Bola Txapelketea 17 urtetik beherakoentzat.

19:30etan, Bola Txapelketea 17 urtetik gorakoentzat.

20:30etan, Aiko alkarteak eskeinutako jantzaldi-erromeria Elizondon.

Abuztuak 1, eguna

Kirol eguna

12:00etan, umeen pentlotoia: ur probak.

17:00etan, 15 urtetik beherako Futbito Txapelketearen finala eskoletan.

18:00etan, 15 urtetik gorako Futbito Txapelketearen finala eskoletan.

19:00etan, esku pelota finala kiroldegian.

20:00etan, Padel eta Frontenis Txapelketen finalak. Partiduak amaitutakoan kopautxoak partaide guztientzat.

Abuztuak 2, barikua

Play-back eguna

16:30etan, esku pelota partiduak. Txutxin Txapelketearen finalak.

19:00etan, baltsen jeitsiera Ibaizabaletik. Urtekerea Tallerretako zubian eta helmuga zubi barrian.

20:30etan, Arrantza eta Ehiza alkarteak sardina-jana eskeiniko dau Elizondon.

22:30etan, 12 urtetik beherako lemoaztarren play-back lehiaketea Elizondon.

23:30etan, kontzertua Elizondon: Anje Duhalde.

01:00etan, 12 urtetik gorako lemoaztarren play-back lehiaketea Elizondon.

02:00etan, erromeria Elizondon: Joxpa.

Abuztuak 3, zapatua

Gastronomia eta gau pasa eguna

11:00etan, ume eta gazteentzako puzgarri parkea eta jokoak eskoletan.

13:30etan, Paella, Tortilla, Gisadu eta Makailao Lehiaketetako lapikoen aurkezpena eskoletan.

16:00etan, umeentzako tailerrak eta jolasak Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta, eskoletan.

17:00etan, Mus eta Briska Txapelketen finalak.

19:00etan, kuadrilen arteko rally umoristikoa, jubiladuen taberman hasita. Elepunto DJ-a.

23:00etan, kontzertuak Elizondon: Malsujeto, Gatibu eta Triki-zio.

05:00etan, kopautxo Elizondon.

Abuztuak 4, domekea

Alkartasun eguna

11:30etan, Lemoa Txirindulari Elkartaren eskutik, ume eta gurasoentzako herriko bira bizikletaz, Gaztetxeko aparkalekutik hasita.

19:30etan, Eusko Label okeleagaz egindako hanburgesa dastaketea. Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira eta jasoten dan dirua FEDER (Federacion Española De Enfermedades Raras) alkartearentzat izango da.

22:00etan, "Garsu" erre Elizondon. Jaiari amaiera.

Gaztetxean be jaiak

Urtero lez, Karabie Gaztetxeok partaidetza aktiboa izango dabe herriko jaietan eta hainbat ekin-tza antolatu ditue Gaztetxean. Programa zehatza karteletan eta Harriketarren webgunean egongo da.

Garagarriak 31, eguztena

Karabie Festa.

22:30etan, kontzertuak Skaikeitari eta Patxuko taldeakaz.

Abuztuak 1, eguna

Autogestino Eguna.

Galdakaoko Gazte Asanbladaren kale antzezlan *Piraten bizitza hoberena da*, Igorreko Btkd batukadea eta Karabir irrati saioa.

Abuztuak 4, domekea

Txosnagunean Harriketerraza, Azkaite Pelox kontzertu animazioa eta sorpresea, txosna guztien artean antolatuta.

ARRATIA

25 urte eta gero



Sara Gutierrez Egileor

Bagilaren 15ean Igorreko Institutuan ikasi genduan 87/88 urteko ikaslagunak alkartu ginan afari baten. Urte horretan hasi zan orduko BBB eta UBI euskera hutsean martxan jartzen Arratian. 25 urte pasau dira institututik urten ginala eta gozada bat da ikustea hainbeste urte pasata, danak hain ondo jarraituten dabela. Arratian bizi garanok, noz edo noz alkar ikusten dogu, baina

beste batzuk azken 20 urteotan ez doguz ikusi. Hata guzti be, danok gogoratuten doguz ondo orduko pasadizo, bihurrikeria eta irakasleen anekdotak.

Oso atsegina izan da orduko oraitzapenak konpartidutea. Horregaitik ebatzi dogu urtero alkartzea, beste 25 urte pasetan itxi barik.

2014ko topaketea maiatzaren 10ean egitea adostu genduan.

Etorri ez zinienok hurrengorako animau eta besarkada bat danoi!



Jai batzordeak eta Lemoako Udalak

Gora San Inazioak!

JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

BEDIA

Batzar Nagusietara eta Legebiltzarrera jo dabe Alfus-FCC eta Incoesako beharginak

Bagilaren 27an heldu ziran Alfus-FCC eta Incoesako beharginak Gasteizera Bediatik oinez abiatuta. Bertara, beharginak babesteko konpromisoa eskatzen eban adierazpen instituzionala eroan eben partiduak sinatu eien.

Erredakzioa

Egun batzuk lehenago, adierazpen hori Batzar Nagusiak sinatu eben. Arratiako Udalen Mankomunidadeak be sinatu eban adierazpena beharginen mobilizazioak babesteko eta enpresari Arratiako lanpostuak mantendutako eskatzeko. Bagilaren 24an, Batzar Nagusietan adierazpena onartu eta hurrengo egunean abiatu ziran beharginak Gasteizera oinez. Egun bi berandago ibilaldia amaituta, kon-

zentrazio bat egin eta partiduak adierazpen hori sinatzeko eskatu eutseen. Halan egin eben partidu guztiak PPK izan ezik. Zeanuriko Udalak be laguntzea emon eutsen beharginak Gasteizerako bidean, lo egiteko lekua itxiz.

Egun batzuk lehenago onartu eban Arratiako Udalen Mankomunidadeak Alfus eta Incoesa enpresetako beharginak babesteko adierazpen instituzionala. Mankomunidadea "arduratuta dago lanpostuen suntsiketegaz,

eta deslokalizazioa gaitzesten dau; era berean, alkartasuna helarazo deutse egoera larrian dagozan familiei" ohar baten bidez jakitera emon ebanaren arabera. Gainera, Alfus-FCC eta Incoesako "enpresen zuzendaritzai eskatzen deutse benetako negoziazioetan hasteko beharginakaz, jarduera produktiboak jarraipena euki dagan eta lanpostuak Arratian geratu daitezkan".

Batzar Nagusietan eta Legebiltzarrean sinatutako adierazpena-

gaz erakundeak "bat eginen dabe beharginen mobilizazioakaz eta enpresari deitzean deutsee interlokuzinora eta kontrata guztien errebisinora" Tamara Martin LAB-ekoak BEGITURI azaldutakoaren arabera.

LABeko Jabi Amorrortu hil egin da

Cementos Lemonako burrukan, enpresa batzordeko bozeroalea izan zan Jabi Amorrortu LAB sindikatuko hil egin zan bagilaren 29an.



Alfus eta Incoesako langileak Asterrian (Zeanuri).

ARRATIA



Gorka Barrenetxeak igaz argazki lehiaketara bialdutako argazkia.

Udako oporrak berbagai gure webguneko inkestan**Erredakzioa**

Gure webgunearen bisitariak euren udako oporren gaineko informazioa konpartitu ahal dabe geure inkestearen bitartez. Izan be, heldu jaku garagarila eta kontraonean harrapatu gaitu: eguraldi txarra eta martia baino ez zala zan askoren sensazioa. Bestalde, egoera ekonomikoak be izan ahal dau eragina ebatziak hartzeako momentuan. Horregaitik hauxe da hile honetako itauna: oporrak pasetako aukeratu dozun lekua aukeratzeko, zerk izan dau eraginik

handiena? Eta erantzun posibleak honeek dira: eguraldiak, diruak, horreek ez dabe eraginik izan.

Aitita-amamentzat ona ilobak jagotea

Aurrekoan, ea aitita-amamentzat ona ete dan ilobak jagotea itaundu genduan. Erantzun dabenen artean, gehienak uste dabe ona dala ilobakaz egiten daben lotura afektiboakaitik (% 62,5), lan handia dala eurentzat pentsetan dabe lauren batek (% 25) eta alde onak eta txarrak daukazala erantzun dabe % 12,5ek.

ZEBERIO

Plan Orokorren parte hartze prozesua abian**Erredakzioa**

Zeberioko Plan Orokorra abian ipinteko, Hiria Kolektiboa Urak Bide Taldearen kolaborazioagaz, hasi da zeberioztarren parte hartzea sustatzeko beharretan. Horretarako, alkarrizketa personalak egingo deutseez herritarrai. "Guretzako urigintzan ezinbestekoa da herritarren auzolana parte hartze bidez egitea, eurak dakie eta, inok baino hobeto, herriak zein arazo, zein gaitasun, zein aukera eta zein beharizan dituan. Partidu politikoen erispidetik harago, herri berbereko herritar gehieneguneko beharizanak oso antzekoak dira" esan deutso BEGITURI Kimetz E. Munitxak Urak Bide Taldea enpresearen komunikazio arduradunak.

Parte hartze honen emoitak dokumentu tekniko batera eroango dabez eta plana egiteko jentearen diagnostikoa eta proposamenetan oinarrituko dira.

Lurren erabilerak

Plan Orokor bat udalerriko uri eta landa lurak eta honeetan emon daitekezan erabilerak antolatuten dituan dokumentu-tresna bat da eta zer, zelan eta non egin daiteken finkatzen dau. "Plan Orokor bat idazteko herria eta herritarren bizitza sakon aztertu behar da. Azterketa honen ondorioakaz etorkizuneko zelango herria gura daben herritarrek ebatziko da".

Teknikarien esanetan urigintzea ez da eraikinetara eta lekuen kudeaketara mugatzen, "enplegua, nekazaritza eta lekuen erabilera be landuten doguz". Holan Zeberioko azterketa etnografikoa egingo dabe; hau da, giza taldeak zelan funtzionetan daben, zelan mobiduten diran, jentearen joerak (Bilbora, Arratiara...).

Momentuz aurrediagnostiko fasean dago Plan Orokor hau eta urte bi edo bi eta erdi beharko dira dokumentua egiteko.



Zeberio.

ZEANURI

Jaietako kartel lehiaketea umeai eta gaztetxoai zuzenduta**Erredakzioa**

Zeanuriko kartel lehiaketan 18 urte baino gutxiagoak aurkeztu daiekiz euren proiektuak hilaren 18ra arte udaletxeko erregistroan. Lehiaketan parte hartzeako Zeanurikoa izan behar da eta proiektu guztietan "Zeanuriko jaiak 2013, abuztuaren 13tik 17ra" testua agertu behar da. Epaimahaiak hilaren 22an jakinarazoko dau bere ebatzia. Saria tablet bat da.

ARRATIA

Udan hilean behin aterako da BEGITU**Erredakzioa**

BEGITU hamabostekaria izan arren, garagarilean eta abuztuan zenbaki bakarra aterako da. Hau da, hilean behin bakarrik kaleratuko da aldizkari hau udako hila beteetan. Aldizkari beharginak oporrak hartu ahal izan daien, urtean 22 zenbaki ateraten ditu BEGITUK.

ARRATIA

Ermitarik ermita, jairik jai

Herriko jairik izan ez arren saninazioak arte, garagarrija jaez beteta dago. Hile honetan, ermiten inguruko auzuneetan izaten dira jai gehienak, santu eta santen egunak ospatuz.

Erredakzioa

Askotan, ospatutako modua, mezea ermitan eta barauskarria mezaostean izaten da, beti be, trikitixearen soinuak lagunduta. Santomasak, sankristobalak, santamañeak, San Segismundo, madalenak, santiagoak, santanak eta saninazioak dira hile honetan ermita inguruetan ospatuko diran egunak.

Areatzan, hilaren 3an, Santo Tomas egunean, mezea eta barauskarria egongo dira Santo Tomas ermitan, eta hilaren 6an, auzokoak, askaria, trikitixaz lagunduta izango dabe Ospitalosten, arrastiko zazpiretan.

Hurrengo jaiak sankristobalak dira. Igorreko San Kristobal auzunean egitarau oparoa prestatu dabe.

San Kristobal (Igorre)
Garagarriak 5, barikua
21:30ean, auzo afaria.

Garagarriak 6, zapatua
17:00etan, Tortilla eta Makailao txapelketetarako izen emotea.

18:30ean, umeentzat Txagu-Magu.

19:00etan, Tortilla Txapelketan tortilla aurkezpena.

19:30ean, makailaoaren aurkezpena.

20:15ean, Arantzarte jantza taldearen emonaldia.

22:00etan, Priscilla Band taldearen kontzertua eta ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Garagarriak 7, domekea

08:30ean, mendi martxea.

13:00etan, mezea.

13:30ean, pintxo pote.

14:00etan, Ugel Txapelketa.

Garagarriak 10, eguaztena

12:00etan, mezea.

Garagarriak 13, zapatua

10:00etan, II. Arratiako Rallya. Urtekera ofiziala San Kristobalgo ermitatik.

13:00etan, II. Arratiako Rallya San Kristobalgo plazatik.

14:00etan, auzuneko nagusien bazkaria.

20:30ean, II. Arratiako Rallyaren azken itzulia San Kristobalgo plaza.

zatik.

Santamañe, San Segismundo eta Madalenak

Hilaren 18an Santa Marina eta San Segismundo eguna da. Santamarinak edo santamañeak Artean eta Dimako Bargondian ospatuten dira. Bargondian Santa Marina egunean ospatuko da santearen eguna mezea eta barauskarriagaz eta Artean hurrengo domekan, hilak 21. San Segismundo jaiak be hilaren 21ean ospatuko da Zeberioiko Upon.

Hurrengo jaiak Madalenak dira, hilaren 22an. Honeek Ubideko Madalena auzunean eta Dimako Lamindaon ospatuten dira.

Santiagoak, saninazioak eta sanadrianak

Santiago eguna, hilak 25, Lemoako Arrañon, Artea eta Dimako Santiago auzuneetan eta Ipiñaburuko parrokiaren ospatuten dira. Ipiñaburun, mezeaz gainera, idi probak eta egoten dira.

San Inazio egunean, tradizioak agindu legez, asko izango dira Gorbeira igoko diran arratiarrak Zeanuri, Ubide eta Areatzatik. BFAK autobusak dobako ipinten ditu egun honetan Areatzatik Pagomakurreraino. San Inazio egunean, 12:00etan Gorbeian, Igiñan egiten da landa mezea, "Edurretako Amaren ermitan jentea ez dalako sartzean. Hau da Bizkaian altueran dagoan ermitarik altuena. Jentean ohitua dauka kurutzera igo eta gero Igiñan mezea ospatuteko. Zeanuriko parrokiako korua eta txistulariak be egoten dira eta sano jai polita da. Aurten bertso sorta bat egin dogu Gorbeiko Amari eta mezatan kantau gura dogu" dinoe Arratiako Eleizatik.



Jente askok igoten dau Gorbeira San Inazio egunean.

IGORRE

Udalak, BFAri Agirre Lehendakaria kalea jaubez aldatzeko baldintzak argitzeko eskatu deutso

Erredakzioa

Gaur egun Igorreko Agirre Lehendakaria kalea Foru Aldundiarena da. Kale hau Igorreko herriaren esku ipinteko baldintzak argitzeko hainbat bilera egin ditu Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Itziar Garamendi Garraio Saileko arduradunagaz. Dana dala, erantzuna nahikoa ez zala eretxita, bagilaren 24an, plenoan Bilduk, EAJ-PNVk eta Igorre Danontzat-ek ebatzi eben gutun bat bialtzea Bizkaiko Foru Aldundira araudia bete eta kale hau herritarren beharizantara egokitzeko emongo dauan kontraprestazioaren zenbatekoa zehazteko eskatuz.

Foru Aldundiaren araudiak, 59.

artikuluko 4. puntuan, sahiesbidea egiten danean, kaminoaren titulartasuna udalera pasauko dala aurreikusten dau. Igorreko saihesbidea 2009ko abenduan zabaldu zan. "Urteak eta urteak herritarren beharizantara egokitu ezinik egon garan erdiko kalean, aspaldi egin beharreko interbenzioak egiteko garaia dala uste dogu" dinoe udal iturriak.

Foru araudiak aitatzen dauan moduan hainbat gauza zehaztu beharko litzatekez: zein eremu dan udalarena izatera pasauko dana, zenbatekoa izango dan Foru Aldundiaren kontraprestazioa, eta ebatzia plenez hartu eta zenbatera egon daitekean indarrean traspasoa.



Agirre Lehendakaria kalea.

IGORRE

Igorre kantari euskerearen alde

Erredakzioa

Igorreko alkarteak eta herritarrak euskal kanta herrikoiak grabetan ibili dira bagilan CD-DVD bat sortzeako. CD honeri esker, urri lehenengoaren 21ean ospatuko dan Inbiu euskera egunean, igorretarrak kantuan ikusteko aukerea egongo da Lasarte Aretoko pantaila handian. Bertan, herritarrak

abestutako euskal kanta herrikoiak agertuko dira, koreografia txiki batez lagunduta.

CD-DVD horren berezitasunik handiena da "ordenagailuz egindako marrazkiak agertuko dirala kantari bizitasuna emoteko. Emoitzea ikusgarria izango da, baina horretarako hilabete pare bat itxaron beharko dogu" dinoe Igorreko Euskera Zerbitzutik.



Arratiako merkatarien elkarte
IGORREN EROSI



Banaaator.....!!!



GANZABAL 40 URTE

XXI. mendeko Ganzabal, etorkizunari begira

1973ko apirilaren sortu zan Ganzabal Mendi Taldea, frankismoaren sasoian Koralarren inguruan. 40 urte bete ditu aurten taldeak eta 700 bazkide inguru batzean ditu. Horregaitik, Lemoako jaietan Ganzabalek irakurriko dau pregoia jaiari hasikerea emoteko. Ganzabal erreferentea da Arratian mendiagaz lotutako edozein ekintzatarako baina beste mendi taldeakaz batera lan egin, eta etorkizunari begira sare sozialetan egon behar dirala uste dabe Ganzabalekoak.



Ganzabal Mendi Taldekoak Arantzazun 1974. urtean.

Erredakzinoa

Urteurrena dala eta, proiektu batzuk daukiez aurreikusita eta bazkideai oparitu bana egin deutsee fidelotasuna eskertzeko. "Gauza berezirik ez dogu egin gura izan, baina halanda be, ospatu gura izan dogu 40. urteurrena, seguru asko 50. urteurrenean ez garalako hemen egongo. Eta jentek Ganzabalek 40 urte egin dituala jakitea gura genduan" azaldu deutso BEGITURI Joseba Undurraga Ganzabaleko zuzendaritzakoak.

Ganzabaleri Udalak urtailean helduarazo eutsan jaietako pregoia egiteko konbitea eta hasikeran zalantzan izan arren onartzea ebatzi eben "beti ez dira hain onak izan hartu-emonak udalagaz. Eta pregoia irakurtzea egiten

dogun lanaren errekonozimentua da" dinoe.

Ganzabal Mendi Taldea, Francoren sasoian sortu zan, "erantzun bat emoteko egoerari. Denpora haretan 100 persona behar ziran mendi talde bat egiteko, eta badakigu familia baten, danak federau zirala zenbaki hori lortzean lagunduteko". Gaur egun, mendi talde handia da Ganzabal, 700 bazkide inguru batzean ditu, eta gauza asko aldatu dira bertan. "Saso barrietara moldatzen gara. Eskaladea gustetan jakola jenteari, ba sartzean dogu; mendi lasterketak eskatzen dituala jentek, ba horreek be emon, mendiko eskia be bai, eta jentek eskatutako beste gauza asko. Orain lehen baino ekintza gehiago egiten doguz".

Hasikerako Ganzabal haretatik helburuak mantenduten dabeza-



Ganzabalekoak Adarran 1997. urtean.

la dinoe.

Bazkide kopurua gorantza

Ekintza ugartze hau, bazkide kopuruaren handitzeari lotuta dago. Hasikerako 100 bazkide hareek zazpirehun bihurtu dira eta egoera ekonomiko latzak ez dau ekarri bazkide kopurua gitxitzea, kontrara. Joerea gorantzkoa da momentu honetan be, eta aurten, orain dala lau urte baino 140 mendizale gehiago dagoz taldean. "Mendia nahiko merkea da eta bazkide kopurua urtean-urtean gorantza doa. Euskal Herrian jentea piloa joaten da mendira eta hemen Arratian be bai".

Mendi taldearen bazkideak ez dira danak bertakoak, Arratiatik kanpokoak be asko dira, % 25 inguru. "Jentek, berak gura dauana ea nok eskeintzen dauan begiratu eta hara doa. Mendizaleak gauza horreek asko begiratu dabez. Zein mendi talde doa hona edo hara. Eta zelango ekintzak eskeintzen dituan mendi talde bakotzak. Azkenengo urteotan jentea hurreratu jaku egiten doguzan ekintzak dirala eta".

Mendi taldeen arteko alkar-lana preminazkoa

Ganzabal ez da Arratiako mendi talde bakarra. Areatzan, Arantzazun, Artean, Igorren, Ubiden, Zea-nurin eta Zeberion mendi taldeak dagoz. "Arratian badagoz beste mendi talde batzuk eta gainera sortzean dabiz barriak, ia herri bakotxean talde bat dago. Guk hori ondo ikusten dogu, baina

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA
Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zelakoentzat elikagaiak
estelziena

Zamako, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

belagorri



2005ean Ezkaurren ateratako argazkia.

argi ikusten dogu gauza batzuetarako batu egin behar gara. Egun berean Arratian bost ekintza egoteak ez dauka zentzurik".

Badira ekintza batzuk, dana dala, Arratiako hainbat mendi talderen artean antolatutak direnak. Holan, barbarako, Arratia-Ubide-Otxandioko mendizale eguna, Ganzabalegaz batera, Igorreko Motxoganeke, Zeanuriko Joko Alaik, Ubideko Amexierrek eta Otxandioko Miru Gainek antolatutak dabe eta igazkoa hamairugarren edizinoa izan zan.

"Idea ona litzateke Arratian danok batu eta mendi talde bako txak ekintza bat antolatutea, aukerea emoteko jenteari leku batera joateko. Hori ikusten dogu: batu behar dala. Ez zatitu. Sortutea bai, baina gero alkarlana behar da, bestela jente gitxi joaten da ekintza bako txera. Talde bako txak bere nortasuna mantenduta, kolaborau egin behar dogu".

Urrietan hainbat mendi martxa dagoz Arratian eta inoz mendi martxa bat baino gehiago egun

berean egotea gertatu dala dinoe Ganzabalekoak.

Mendi taldeak zahartzen

Mendi taldeak aisialdirako eskeintza interesgarriak izaten dabez eta aisialdi ez hain konsumista egiteko modu bat da: mendi urtekerak, mendi martxak eta mendi lasterketak ez dabe gastu handirik suposatzen. Gainera, modernidadeagaz lotutako aisialdirako planak eskeintzen dira bertatik, jenteak eskatzen dauana kontuan hartuta: eskia, eskaladea, urrineko mendiak... Eta naturagaz kontaktuan, beste aisialdi bat biziteko aukerea eskeintzen dabe.

Eskeintza ugaria izan arren eta bazkide kopuruak gora egin arren, mendi taldeak zahartzen dabiz Euskal Herri osoan. "Mendiak esfortzu bat eskatzen dau eta jente gazteak ez dau funtzionetan mendi taldeen bitartez. Dana dala, mendi taldeak zerbitzu batzuk eskeintzen ditue eta askok aprobetxetan dabe segurua eukiteko

edo. Gure egutegia danontzat da. Tailerrak daukaguz jente gazteak eskaletan edo neguko teknikak ikasteko, edo eskiatzera joateko... Eta umeentzako urtekerak be badaukaguz futbol edo esku peloteari alternatiba bat emoteko. Hemen Arratian, adibidez, neskek edade tarte baten ez daukie aukera handirik kirol munduan". Mendia aukera bat izan daitekela uste dabe Ganzabalekoak.

Euskerea eta teknologia barriak

Ganzabal Mendi Taldearen hizkuntzea euskerea da. Euskeraz ez dakian jente asko egon arren, batzarrak euskeraz egiten saiatzen dirala dino Undurragak eta komunikazio guztiak euskeraz egiten dabez. Bagilan, gainera,

Argi ikusten dogu gauza batzuetarako batu egin behar gara. Egun berean Arratian bost ekintza egoteak ez dauka zentzurik

Lemoako Udalagaz hitzarmena sinatu eben euskerearen inguruan eta euskerearen ziurtagiria be saiatuko dira lortzean.

Euskerearen aldeko ekimenean, Korrikan barbarako, hartzean dabe parte eta euren ekintzetan euskerea da nagusi.

Ganzabal sarean da. Webgunea eta facebook daukaz mendi taldeak eta horreetan be gehiena euskeraz izaten da. "Gaur egun, interneten egotea garrantzitsua da, jenteak gero eta gehiago erabiltzen dauala ikusten dogu. Hor egon behar gara bai ala bai".

Izan be, Ganzabal XXI. mendeko mendi taldea da, gaur egungo teknologiak erabiltzen dauana, gaur egungo hizkuntzan eta gaur egungo aisialdirako eskeintza egiten dauana.



Aurtengo urtekerara bat.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

OPEL
Ibaigane, s. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

ARA MOTZ
Laneguren O Jabearen!

Olaetxe
OPTICA ZENTROA

- Graduzinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibatua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

ERRUGBIA

Arratiarrak selekzinoetan

Ainhoa Duñabeitia

Denporaldi ederra egin ostean zekorretako batzuk ez dabe ia deskantsurik izan. Maiatzean amaitu eben denporaldia eta horregaz denporaldiko norgehiagokak, baina ez dabe errugbia alde batera itxi. Arratiko Zekorretako batzuek selekzinoakaz jokaturteko aukerea izan dabe egunotan: batzuek Bizkaikoagaz, beste batzuek Euskal Selekzinoagaz eta beste batzuek Espainiako Selekzinoagaz.

Imanol Iriondo dimoztarra Espainiako Selekzinoagaz ibili da. Denporaldi zoragarria egin ostean, Espainiako Selekzinoagaz entrenetako deia jaso eban urte hasieran. Madrilan ibili zan entrenetan eta partidu pare bat be jokatu ebazan, Espainia osoko errugbi

jokalari onenakaz. Espainiako Selekzinoatik aparte, Euskal Gazte Selekzinoagaz be ibili da Iriondo.

Ekaitz Duñabeitiak ostera Euskal Selekzinoagaz partidu pare bat jokatu dau. Esaterako, Galizian, Euskal Herriko errugbi jokalaririk onenak batu ziran galiziarak irabazteko asmotan, eta lortu be egin eben.

Honeek biak ez dira selekzi-

noetan ibili diran bakarrik. Ekaitz Duñabeitiagaz batera eta talde berean, Iñaki Luengok, Eder Arribasek eta Arkaitz Mancisorrek Mungian jokatu eben lagunarteko bat Bizkaiko Selekzinoagaz, Galesko Babariansen kontra. Lagunarteko horretan, errugbizale moltzoa ikusteko aukera itzela izan genduan. Bagilaren 22an Burgosen beste partidu bat be jokatu eben arratiarrak Bizkaiko Selekzinoagaz. Hamabi taldek jokatu eben Seven deritxan txapelketan eta 5. postua lortu eben bizkaitarrak.



Ekaitz Duñabeitia, Eder Arribas, Iñaki Luengo eta Arkaitz Mancisor.

FUTBOLA

San Juan jaietako Ubide-Zeanuri futbol partidua

Irati Urien

Zeanurik errez irabazi eutsan Ubideri. 9-2 izan zan herri honeen arteko futbol partiduen emoitzea. Hilaren 22an jokatu zan, Ubideko Olalde zelaian eta agerikoa zan Ubideko gazteak sanjuanetako barikuan jai giroan ibili zirala. Hata guzti be, umorez hartuten dan partidu bat da, lagun artekoa da eta. Bueltea, Zeanuriko Andra Mari jaietan izango da. Igaz hasi ziran norgehiagoka honegaz.



MENDIA

Erronkea bete eban Ander Astondoak

Erredakzioa

Arratiako 25 tontorrak jarraian egitea lortu eban Ander Astondoa Igorrekoak bagilaren 23an. Guztira 139,5 km. egin zituan 25 ordu eta 50 minututan eta 01:50ean amaitu eban ibilaldia Areatzan. Uste baino 40 km. gehiago izan ziran, eta desnibela be uste baino handiagoa, baina Igorrekoak erronkea betetea lortu eban.

Bide guztian konpainia izan ebala dino eta horrek lagundu eutsala "Aldaminen bajoi bat euki neban, nekea. Baina jan eta edan ondoren, konbersazio apur bategaz errekupeau nintzan. Hoge bat lagun egon ziran hornidura guneetan eta

nigaz ibiltan". Ganzabal Mendi Taldearen laguntza izan eban Astondoak antolakuntzan.

Hurrengo erronkea ondino hau baino gogorragoa izango dala dino kirolariak: Mont Blanc Ultra Trail lasterketea, hain zuzen be. Honetan 166 km. egin beharko ditu eta abuztuaren azken astean izango da.



Ander Astondoa.

FUTBOLA

Beñat Etxebarria Athleticera

Ainhoa Duñabeitia

Zurumurrak egia bihurtuta azkenean, Beñat Etxebarria zurigorri jantzita ikusiko dogu hurrengo bost urteetan. Azken urteak Sevillako Betis taldean pasa ostean etxera bueltauko da Igorrekoa.

Bagilaren 27an aurkeztu eben jokalaria Ibaiganen. Espektazino handiko eguna izan zan eta hedabide ugari hurreratu ziran bertara. Zurigorri koloreak pozik eta gogoz defendiduko

dituala adierazo eban Etxebarriak.

Beñatek be, jokalaria askok moduan bere lagun taldea propioa eukiko dau, lagunak sortutakoa. Igorreko jaietan izan zan aurkezpena, eta hainbat lagun batu ziran Kultur Etxean Beñateri ongi etorria emoteko. Lagun taldean izena emoteko aukerea zabalik dago.



Beñat Etxebarria.

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendizola, 3. 48530 LEZIOA, Bizkaia
Tel: 090 482 830 / 090 000 717

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
04 631 52 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egln eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober W 630 743 543
48.140 Igorre Manuel W 661 848 793

ZEKUTZE
JATETXEA
Salbu Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejatetxe@hotmail.com

indar
Instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

UMOR moda
sein
0-16
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

AKETEGIA
GAY 5 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARIN HUGAZTINEN
ASIGURUTAN
Salbu Arana, 3 Tfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 64 61 - 48140 IGORRE

axular
kultura-erakundeak
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

PALA TXIKIA

Martin eta Ariztegi, Agirre eta Etxanizeri nagusitu jakien Diman



Bikote biak Dimako frontoian.

Erredakzioa

Nesken gomazko paletako Euskadiko Pelota Federakundearen zirkuituko partidua ikusteko aukerea egon zan Diman bagilaren 23an. Gasteizko Nagore Martin eta Mallabiako Amaia Araiztegi, Amurrioko Maitane Agirre eta Etxebarriako Leire Etxanizeri nagusitu jakien, (19-30). Partidu hau, Dimako jai batzordeak antolatu eban, Txumuluxueta pelota esko-

learen ekimenez eta Udalaren Bardintasun arloko diru laguntzeagaz.

Hasikeratik aurrea hartu eban Martin eta Araiztegi osotutako bikoak, eta hamaika puntuko aldea atera eutsen Agirre eta Etxanizeri. Agirre eta Etxanizek, momentu batzuetan aldea txikitu bai, baina ezin izan eben Martin eta Araiztegiaren garaipena arriskuan ipini. Dana dala, joko polita egin eben bikote biak pelota modalidade ikusgarri honetan.

SEGA

Irati Astondoa bigarren Europar erako txapelketan

Erredakzioa

Bigarren egin eban Irati Astondoa Europar erako sega txapelketan. Azken saioa bagilaren 30ean jokatu zan Azpeitian, eta txapelketea irabazteko norgehiagokea irabazi behar eban Zeanurikoak. Bigarren gelditu zan ostera Alaitz Imazen atzetik.

Europar erako sega txapelketa maiatzaren 4an hasi zan eta

zortzi neska neurtu dira bertan. Lehengo saioa Nafarroako Basaburuan izan zan eta Astondoa bigarren egin eban; bigarren saioan, Zaldibin (Gipuzkoa) hirugarren egin eban arratiarrak, Alatzne Etxaburu eta Alaitz Imazen atzetik. "Sekulako tenporadea egin dot aurten, baina beste biak be holan dabiz eta dana arriesgau egin behar izan dot finalean" azaldu eutsan BEGITURI Zeanuriko segalariak.

Euskal Herrikoa be gogorra

Euskal Herriko Txapelketea garagarriaren 21ean izango da. Bertan, Irati Astondoa, Alatzne Etxaburu eta Arrate Garinek baino bedar kilo gehiago mozten saiatuko da.



Irati Astondoa.

AUTOAK

Arratiako II. Rallya eta auto erakustaldia

Erredakzioa

Auto klasikoen Arratiako Rallyaren bigarren edizioa izango da hilaren 13an Real Peña Motorista Bizkaia eta Gorbeia Racing Alkarteak antolatuta. Batzen 50. urteurrena ospatuteko egitarauaren barruan dago lasterketa hau, eta bertan 25 urtetik gorako autoak hartuko dabe parte. Parte hartzaileak Euskal Herri osotik, Kantabriatik eta Madriletik etortea espero dabe antolatzaileak. Gainera, rallyaren egunean eta biharamunean erakustaldiak egingo ditue Batzeko instalazioetan, auto klasikoak zein modernoak erakusteko.

Goizeko 10:00etan hasiko da ibilgailuen konzentrazioa eta rallyan parte hartuko dabenen egiaztatzeak, eta hamaiketan urtengo da lehenengo parte hartzailea. Zati bi eukiko dauz probeak eta erregulartasuna puntuauko da. Lehenengo zatia amaitutakoan Batzeko parkinera itzuliko dira partaideak eta handik ekingo deusie bigarren zatia 14:30ean. 21:00etan, Lehenengo parte hartzailea zirkuitura helduko da frogeari amaierara emoteko eta 22:00etan sari banaketea izango da.

Auto klasikoak herrietatik dabiz bitartean "motor show" erakustaldia egingo dabe Batzeko zirkuituan konpetizinoan ibilgailuakaz.

Arratia eta bere inguruetan

Rallya, Igorre, Dima, Areatza, Artea,

Zeberio, Orozko, Zeanuri, Ubide, Etxebarri, Zigoitia eta Lemoatik pasauko da. Guztira 300 km. eta 10 orduko proba izango da.

Rallya segidu gura dauanantz:

11:05ean lehenengo erregulartasun gunearen urtekeera San Kristobal eleizaren parean. (San Kristobal-Igorre). 11:12an lehenengo igarobidea Dimatik (Kiroldegia). 11:30ean bigarren erregulartasun gunearen urtekeera Aldamin tabernaren parean (Areatzako igerilekua). 11:40an lehenengo igarobidea Arteatik (Elexabeiti). 11:50ean Zeberio (BI-3543). 12:30ean Orozko (urbanizata dagoan inguru barria). 13:00etan bigarren igarobidea Arteatik (Elexabeiti). 13:15ean bigarren igarobidea Igorretik (San Kristobal). 13:20an bigarren igarobidea Dimatik (Kiroldegia). 14:50ean

lehenengo igarobidea Zeanuritik (Plazea). 15:50ean lehenengo kontrol igarobidea Ubiden (Batzokia). 16:10ean lehenengo igarobidea Etxaguenetik. 16:55ean zazpigarren erregulartasun gunea Etxebarri-Ibiña partzelako bidegurutzean (Etxebarri-Mendiguren partzelan). 17:15ean zortzigarren erregulartasun gunearen urtekeera Zigoitiako udaletxearen parean (Ondategi). 17:40an bigarren kontrol igarobidea Ubiden (Gorbea taberna). 18:40an bigarren igarobidea Zeanuritik (Plazea). 19:20an hamargarren erregulartasun gunearen urtekeera Lemoan (Juan de Añunagerra kalea). 20:15ean hamaiagarren erregulartasun gunearen urtekeera Arratiano jatetxean (N-240 Areatza). 20:35ean hirugarren igarobidea Dimatik (Arratiako Egoitza). 20:45ean hirugarren igarobidea San Kristobaletik.



BOLA JOKOA

Itsaso Arrizabalaga: "Koordinazioa ezinbestekoa da bola jokoan"

Irati Urien


Itsaso Arrizabalaga Igorreko gazteak orain dala lau urte ekin eutsan bola jokoari. "Txirpu" gatzizenagaz ezaguna dan Juan Mari Aurtenetxek animau eban, eta hiru urtean Obako taldean egon zan beragaz. Egun, Zornotzako talde baten botaten dau. "Urteakaz jente gehiago ezagutu, eta azkenean zeure taldea egiten dozu" dino bolariak.

Hiru dira Arratian bola jokoan aurtu ibili diran taldeak: Oba, San Kristobal-Artan eta Lemoa. Txapelketa nagusiak Komarkala, Bizkaiko biak eta Euskal Herrikoa izaten dira. Komarkala marti erdi inguruan hasten da. Bederatzi-hamar bolaleku dagoz, eta astegoen guztietan jokatuten da, zapatueta. Komarkalean ez da bereizketarik egiten neska eta mutilen artean eta batera jokatuten dabe danak. Bizkaikoan ostera andrazkoak alde batetik, eta gizonezkoak

bestetik neurtzen dira.

Puntuai jagokienez, komarkaleko emoitzeari Bizkaiko Txapelketa bietako puntuak gehituten jakoz, eta dana batuta gehien ateraten dabena Euskadikorako klasifiketan dira. Hamabost mutil eta hiru neska jokatuten dira; tartean, zuzenean klasifiketan dan Bizkaiko txapelduna. Euskal Herrikoako klasifikau zan Itsaso Arrizabalaga, baina ezin izan zan joan.

Joko hau praktiketean dauan Arratiako neska bakarra da Arrizabalaga. Hasikera baten animau arren, jenteak bigarren urtean jokoari itxi egiten deusala dino. "Kontua da martian ia hasikeratik maiatzaren amaieraraino zapaturu bolalekura joan behar zarala; eta arrasti osoan bertan egon". Igorrekoak jokatuten segiduteko asmoa eta gogoia dauka bada barik. "Niri asko gustetan jata, astean gitxienik bitan entrenetan dot", adierazo dau bolariak. Entrenamentuak kirol guztietan lez



Itsaso Arrizabalaga.

azkenean igari egiten dirala aitortu dau eta zerikusi handia daukiela botaldietan.

Bolari ona izateko bolea soltetan dan momentuko koordinazioa dala inportanteena dino, "paukuak eta bolea soltetea, gorputzagaz keinu hori egitea... kordinazio hori ezinbestekoa da". Indarra be beharrezko faktore bat dala azaldu deusku, baina teknikea dala garrantzitsuena.

ZIRKUA

Ume eta gazteak buruz
behera Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Bagilaren 20an, Buruz Behera zirku eskolak ikasturte amaierako ekitaldia eskeini eban Lasarte Aretoan. Bertan, ikasle izandako dozena bat umek, Mainer Yabar eta Idoia Foruria irakasleak ikasitakoa erakutsi eben bete-bete egindako aretoan. Malabarrak, lurreko akrobaziak, akrobazia aereoak, oihalak eta sokalariak osotu eben ikuskizuna.

Sei urtetik gorako hogetabat ume pasau dira aurtan zirku ikastaroetatik, "talde bi egon dira, martitzenetan hasi barriak eta eguenetan igazko esperientzia daukienak. Urte bi daroaguz jarriraian baina orain dala lau urte, hiruhileko bi egin genduzan kiroldegian. Orduan malabarrak eta

lurreko akrobaziak baino ez genduzan egin. Akrobazia aereoak orain dala urte bi hasi ginan" azaldu deutso BEGITURI Mainer Yabar irakasleak.

15 eta 30 urte bitarteko gazteak osotutako beste talde bat be egon da zirku eskolan.

Datorren urterako matrikula epea urri lehenengoan zabalduko da.

Bizitzarako ikasgai baliogarririk

Umeak euren gorputzen konzientzia hartzea da akrobazia honeen helburuetako bat, eta "ume bako txaren gaitasunak eta zailtasunak lantzean doguz. Sormena be landuten dogu eta ariketen bidez motibazioa bultzatu. Garrantzi



Zirku eskolako ikasleak Lasarte Aretoan.

handia emoten deusagu umeak gustura egoteari eta ondo pase-teari, baina emoitza onak lortu-teari be bai: prestakuntza fisikoa eta flexibilitadea egunero landu beharreko gauzak dira. Gainera,

zirkuaren bitartez umeen gorputza osasuntsu egotea potentziau gura dogu. Izan be, umeak ordu asko igaroten ditue ikasten eserita eta horrek etorkizunean arazoak ekarri daitez".

Umeen arreta eta kontzentrazioa be landuten dabezala dino Yabarrek eta horrek bai ikasketetarako bai bizitzarako sano baliogarrria dala.

Yabarrek sari ugari

Buruz Behera Zirku eta Antzerki Konpainiaren sortzailea dan Mainer Yabarrek, Ttantaka, Vaiven eta Hika konpainietan ibilbide luzea egin ondoren, Azulkillas Zirku eta Kale Antzerki konpainiak sortu zituan. Azulkillasek sariak jaso zituan 2005 eta 2006 urteetan, Leioako Off jaialdian eta Vilanova i la Geltruco zirku eta trapezio azokan, hurrengo hurrengo. Aktore moduan, andrazko antzerki aktorerik onena izentau eban Euskal Aktoreen Batasunak Yabar 2000. urtean, Vaiven Producciones taldean *Lotsa gabe* antzezlanean interpretatu eban personajegaitik. Antzezlari horrek euskeraz antzeztutako obrarik onenari Donostia Saria be jaso eban hurrengo urtean.

LIBURUA

Alvaro Rabelliren *Naia Chinatown inguruan*
eleberria salgai

Erredakzioa

Arian euskera metodoagaz lotuta, euskera ikasleentzako irakurgai mailakatuen bilduman, Alvaro Rabellik, idazle eta irakasle zeanuriztarrek, *Naia Chinatown inguruan* eleberri laburra kaleratu barri dau Elkar argitaletxearen eskutik.

Liburuxka hau, Europako erre-

ferentzia esparruaren arabera, A1 mailari jagoko; hau da, euskera ikasten hasten diran ikasleentzako oinarri-oinarrizko irakurgai. Liburua, irakurmenaren ulermenagaz lotutako lanketa didaktikorako materialez horniduta dago; ariketa, berbategi eta audioagaz.

Naia Chinatown inguruan eleberri baltzak Bilboko gazte baten

bizipenak kontetan dauz. Detektibe bokaziorik euki ez arren bizimodua aterateko lan egin behar dauanez, mila abenturatan kateatuko da.

Euskaltegietan eta institutuetan

Liburua euskera ikasten hasten diran ikasleak maila honetan daukien irakurgaien gabezia betetzera dator. Euskaltegietan eta institutuetan erabiliko da.

"Aurrerago, Naiaren beste abentura bat gehiago egongo da, udagoienean edo kaleratuko dana. Saga txiker bat egiteko asmoa dot" azaldu deutso BEGITURI Alvaro Rabellik.



Alvaro Rabelli.

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Auriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nigar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

begitu
aneta ubide zabalak

MERKA LABELA-HARATEGIA
Etxeko produktok
• Txerizok
• Olibozok
• Baskantok
• Salbitok
• Harburgak
Armatzako produktok
• Besoriko atzetak
• Detsok
• Besoriko armatzetak
• Txerizok
• Harburgak
• Garsiko fruta eta barazkiak
Herriko kalea 11 - 94 631 61 33 - www.merkalabela.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 - Telefonoa: 94 673 60 14 - IGORRE BIZKAIA

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza - Tfnoa 649 86 95 36

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-34

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak • Edariak
94 673 64 02 - Industrialea E-3 Pabeloia (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmenak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Igorre 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unda.A@euskalnet.net

MEMORIA

Lemoatxeko lubakiak errekuerauko dabez munduko gazteak

Erredakzioa

"Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzean dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso barik, alkarregaz bizi eta gizarte osoagaz zerikusia daukan proiektu baten parte hartzeako asmatan", Gazteukera, Euskadiko Gazteen atariaren definizioaren arabera. Lemoatx 37 memoria historikoa errekuerautako herri batzordeak antolatuta, auzolandegi bi egongo dira uda honetan Lemoatxen, bata trintxerak eta bestea ermitea errekuerautako. Taiwan, Japonia, Errusia eta Alemaniari etorritako gazteak, besteak beste, egingo ditue lanok.

Hamabost egunetako txanda bi izango dira. Lehenengoa, hilaren 16tik 30era eta bigarrena abuztuaren 1etik 15era. Txanda bakoitzean 20 gazte inguru, 3 begirale eta lan teknikoaz arduratzen direnak egongo dira. "Alde tekniko udalaren menpe dago eta bestea Eusko Jaurlaritzaren menpe. Hau

da, begiraleak Eusko Jaurlaritzak ipiniko ditu eta Lemoako Udalak, aparejadoreak eta Lemoatx 37ko batzordeko batzuk" azaldu deustxo BEGITURI Mikel Garcia Gazte teknikaria eta Lemoatx 37 taldeko partaideak.

Gazteak eskoletan hartuko dabe ostatu eta urtekerak bat egingo dabe hamabostaldi bakoitzean. "Gernikara egingo dogu urtekerak bat goizean, eta Bilbora arrastian seguru asko. Bilbon turismo apurtxo bat egingo dogu bizikleta gainean" dino Garcia. Bigarren txandakoak Zeanurira be joango dira eta antolatzaileak hola eskatuta, San Justoko karobiarri emongo deustxo su abuztuaren 3an.

Lemoatx 37 batzordearen ekimena

Auzolandegiok Lemoatx 37 batzordearen ekimena izan dira memoria historikoa errekuerautako. Batzorde honek zabalduko dau herrian zer egingo dan auzolandegietan

eta batzordeko batzuk be egongo dira bertan lanean.

Memoria historikoa errekuerautako lanok "apurka-apurka" aurrera doazala dino Garcia. "Orain, nire ustez beharrik erakargarriena izan daitekena egiten gabiz, guda garai hori bizi izan eben personai alkarizketak egiten". Lemoan 1937an gertatutakoa kontetako gogoz dagozala lekukoak dino Mikel Garcia.



Ermitea eta kurutzea Lemoatxan.

AURRESKUA

Bederatzi aurrekulari hilaren 6an Igorreko Aurreku Txapelketan

Erredakzioa

Udalak antolatuta, Igorreko Aurreku Txapelketea 12. ediziora heldzean da aurten. Txapelketea Igorreko Kultur Etxean izango da garagarilaren 6an, arrastiko seiretan. Bederatzi aurrekularik emon dabe izena, tartean igorretar bat, Asier Etxezarragak. Jantza tradizionalak osasuntsu egon arren Arratian, aurrekuak ez dauka horebesteko segmenturik. Publiko gitxi izan da aurreku lehiaketaren azken edizioran, eta aurten partaidetza behera egin dau: izan be, bederatzi aurrekularik baino ez dabe izena emon. Aurreko urteetan be askotan bederatzi aurrekularik baino parte hartu izan ez arren, izena 13 inguruk emoten eben.

Txistua jotzen Julen Bilbao igorretarra izango da, IX. ediziora irabazi ebana eta epaimahaian beste igorretar bat: Iratxe Salcedo. Aurrekulari askorik ez izan arren, lan gaxa izango dabe epaimahaioak, Igorren beti sano maila oneko jan-

tziariak aurkezten dira eta.

Bizkaiko jantzariak

Aurtengo bederatzi aurrekulari horreen artean, lau neska dagoz, inoz baino gehiago. Aspaldi ez dala, aurreku mutil eta gizonak baino ez eben jantzatzen eta hola zan Igorreko lehiaketan, hasikera baten. Neskak 2007an, seigarren edizioran, hartu eben parte lehenengo aldiz. Orain, gero eta jantzari gitxiagok izena emoten daben honetan, erdia inguru neskek izango dira.

Aitatutako Portugalete, Leioa eta Igorretik aparte, Durango, Santurtzi, Barakaldo eta Bilbotik etorriko dira jantzariak. Danak Bizkaitik.



ERAKUSKETEA



Eulalia Abaituaren gaineko berbaldia.

Eulalia Abaituaren argazkiak ikusgai Areatzan

Irati Urien

Arratiako bailarari lotutako irudiak hartu ebazan berbaigai Maite Jimenez Euskal Museoko teknikariak bagilaren 27an, Areatzako ludotekan emondako berbaldian. "Eulalia Abaituaren bizitza eta lana" izan zan gaia, eta argazkilaria alderdi biografikoak aitatuaz hasi zan berbaldia. Egilearen lanen edukari errepaso bat emon jakon ostein, eta Bilboko Euskal Museon gordetzen dan ondasunaren inguruan be egin eban berba Jimenezek. Areatzako zein inguruetak herrietako jentea hurreratu zan proiektinora, eta

interes handiagaz begiratu eben Abaituaren argazkien erakusketea, agertuten ziran persona zein parajeak ezagunak ziran askorentzat eta. Erakusketak hau hilaren 31ra arte ikusi daiteke Areatzako Ludotekan.

Eulalia Abaituaren leku kutuntako bat Arratiako bailara zan. Bertatik, azpimarratutakoak dira gizon zaharren argazkiak. Andrak, bariz, euskal usadioetako bizidun ordezkariak zirala eta, angelu posible guztietatik erretiratu ebazan. Gaur egunean bakarra eta errepetidu ezin leiteken balioa daukie irudi horreek.

Fondo moduan izara baltz bat ipinten eban argazkilaria. Beha-

rragazko sen eta maitasun emozionala erakusten ditu argazkietan eta pertsona apal, umil eta ia beti anonimoak erakarten eutsien begiradea.

1990ean Eulalia Abaituaren irudien lehenengo aurkezpen publikoa egin zan Bilboko Euskal Museon. Alberto Schommer argazkilaria egon zan bertan. "Begi sentikor bat da, bere herria maite dauana eta benetako *reporter* bat lez jardun dauana. Bere obra morfologia eta etnografia puru handikoa da; bere artea oster, sekulako naturalidadeagaz konposatzea da" esan eban Schommerrek. Hiru dira museon desbardindu leitezkan gaiak: bizimodu pribadua, mundu tradizional eta urbanoak, eta biajeak.

Bere gizartearen lekuko

Eulalia Abaitua familia burges baten jaio zan Bilbon eta inguratzen eutsan gizarte adierazoteko erabilten eban argazkilaritza. Euskal Herriko lehenengo andra argazkilaria da. Bere lehenengo argazkien data zehatzik ez badago be, 1900. urtean teknika itzel kontrolatan ebaneko seguridadea osoa dago. Abaituak ondo ekian zer gura eban arte honetatik. Bere materialik gustukoena kristalezko plaka estereoskopikoak ziran eta urtekerak fotografikoetara neska gazte bat erotzen eban laguntzailer moduan, oraindino anonimoa dana.

LARRE ALDAKETA

Enrike Etxebarriaren ardiak Arrabako landan dagoz

Erredakzioa

Urtero lez, Ipizki taldeak, bagilaren 30ean, Enrike Etxebarriari eta bere artaldeari larre aldaketea egiten laguntzeko aukerea eskeini eban. Aurten apurtxo bat beranduago izan da eguraldiak ez daualako berotu bagilaren amaiera arte. Hainbat lagunek, 70 inguruk, egin eben Elexartza baseritik Arrabako landarainoko bidea Etxebarriagaz.

Goizeko bederatzietan batu ziran parte hartzaileak Zeanuriko plazan, hoge minutu berandu-

go Enrike Etxebarriagaz alkaritzeko Elexartza baseri aurrean. Han, Enrikek bere artaldea batu eta arreba Ana Marik, ohitureari jarraituz, bedeinkatu egin eban artaldea "San Joanek jagon daizala Arrabako landan" esaldia esanaz. Arrabako landan Enrikearen txabolea bisitetako aukerea be izan eben. Aurreikusita egoan moduan, ordu bi eta erdietako Zeanuriko plazan ziran bueltan. Parte hartzaileak pozik agertu ziran artzaintzeagaz eukitako kontaktugaitik.



AGENDEA

**GARAGARRILA
AREATZA**

Eulalia Abaituaren "Arratiako irudiak" argazki erakusketea ludotekan hilaren 31ra arte.

LEMOA

Garagarilaren 6ra arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta udako urtekeraren berezia Pirinioetara.

**GARAGARRILAK 1
ARANTZAZU**

09:00etatik 14:00etara, eta 5era arte udalekuak 2 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

BEDIA

12ra arte, udaleku irekiak eta Txiki Txokoa.

**GARAGARRILAK 3
AREATZA**

12:00etan, mezea Santo Tomas baseleizan (Ospitalosten) eta barauskarria.

BEDIA

17:00ak baino lehen, izena emon eskoletan jubilduen urtekerarako (biajea hilaren 13an).

**GARAGARRILAK 4
DIMA**

19:00etan, EHBilduren ekitaldia "Koloreztatu daigun Arratia". Konbidaua: Laura Mintegi.

ZEBERIO

Aizkornira joateko izena emoteko azken eguna austarimendialdea@gmail.com-en.

**GARAGARRILAK 5
DIMA**

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herriak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazinoa herriko plazan. 18:30etik 21:00etara *Epaia ibiltaria* egongo da.

IGORRE

San Kristobaleko jaiak. Egitaraua 7. orrialdean.

**GARAGARRILAK 6
AREATZA**

19:00etan, Ospitalosten askaria eta trikixtea.

IGORRE

18:00etan, Igorreko XII. Aurreku Txapelketea Kultur Etxean.

**GARAGARRILAK 7
ZEBERIO**

07:30ean, Austari Mendi Taldeak antolatuta, Aizkornira mendiko urtekerara. Plazan.

**GARAGARRILAK 8
ARANTZAZU**

09:00etatik 14:00etara, eta 12ra arte udalekuak 2 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

DIMA

Hilaren 19ra arte, udaleku irekiak.

LEMOA

11:00etatik 14:00etara, hilaren 19ra arte, udalak antolatuta ludoteka ibiltaria.

**GARAGARRILAK 13
AREATZA**

Ibinako karst-ean zehar ibilaldia. Gorbeia Parke Naturalak antolatuta.

BEDIA

Elexalde Bediako Jubilduen alkarteak antolatuta, urtekerara Laguardiara (Araba).

IGORRE

10:00etan, Arratiako Auto klasiko II. Rallya. Batzoko instalazioetatik urtegera da. Konpetizino ibilgailuen erakustaldia. Egitaraua 11. orrialdean.

LEMOA

Arratiako Auto klasiko II. Rallya, iluntzean Elizondotik pasauko da.

**GARAGARRILAK 14
LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerara Arratiatik.

**GARAGARRILAK 15
BEDIA**

Hilaren 20ra arte, Uda Gaztea.

**GARAGARRILAK 20
DIMA**

12:00etan mezea Santa Marina ermitan. Bargondia. Ondoren barauskarria.

**GARAGARRILAK 21
ARTEA**

11:00etan mezea eta barauskarria Santa Marinan.

ZEBERIO

San Segismundo jaiak Upon. Mezea eta barauskarria.

**GARAGARRILAK 22
DIMA**

Madalena jaiak Lamindaon. 12:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

**GARAGARRILAK 25
ARTEA**

11:00etan, Santiago ermitan mezea eta barauskarria.

DIMA

12:30ean, mezea eta barauskarria Santiago ermitan.

LEMOA

12:00etan, Arraion Santiago ermitan, mezea eta otean barauskarria.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekerara.

Castanesa (2.859 m.), Aneto (3.404 m.), Aragüells (3.057 m.), Sacroux (2.668 m.).



Gatibu Lemoako jaietan

Exkixu taldekoa izandako Alex Sarduk, Haimar Arejitak, Gaizka Salazarrek eta Mikel Caballerok osotuten dabe Gatibu taldea. Talde arrakastatsu honek kontzertua eskeiniko dau Lemoan abuztuaren 3an, gaueko 00:30ean Elizondon saninazio jaietako egitarauaren barruan. Sarduiren aurreko bandaren, hau da, Exkixuren, omenezko talde arratiarrak be, Exaixuk, kontzertua eskeiniko dau bertan garagarilaren 30ean, 00:15ean.

Gatibu 2.000 urtean sortu zan eta bizkaieraz kantetan dauan talde mitikoa da. *Zoramena* (2002) *Disko Infernu* (2005) *Laino guztien gainetik*, *sasi guztien azpitik* (2008) *Zuzenean bizitzeko gogo* (2010) eta *Zazpi kantoietan* (2012) diskoak osotuten dabe bere diskografia.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

BASERRIA SALGAI

Zeberion baserri-bainuete barrizatuta salgai. 320.000 euro. Gorbeia Parkearen barruan kokatuta. Bizitzeko moduan. Telefonoak: 94 648 15 90 eta 609 568 453.

AUTOA SALGAI

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).

ETXEA SALGAI

Babes Ofizialeko pisua salgai Areatzan. Aukera ezin hobea Arratian bizitzeko. 3 logela, bainu bi, sukaldia ipinita, saloia, garagea eta trastelekua. Nerea 674 798 984.

DANERIK**BIZIKLETEA GURA DOT**

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria

eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabbarri@gmail.com helbidera.

GARAJEA ALOKAIUAN

Zeanuriko plaza-plazan dagoan garajea emongo neuke alokairuan. Interesdunak 94 631 70 46 telefonora deitu (iluntzetan).

ALTZAIURAK BEHAR DOGUZ

Dimako gaztetxoan lokalean altzairuak behar doguz: sofak, mahaiak, apalategiak... Baten batek botateko edo sobran badaukaz deitu telefono honeetara: 680 207 565 edo 634 401 026.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 2102ko Gorbeia Suzien mendi-lasterketako kamisetea.

Maitane Campo (Areatza)
Olaia Gurtubai (Dima)



2 BEGITUREN kamisetea.


Edorta Alonso (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 11 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Galdera aurretik. Ezti. 2.- Adi egon. 3.- Giroa egokitu. 4.- Haga, habe. Birritan, berbata hotsaren onomatopeia. 5.- Zirkuan egiten dau behar. 6.- Letra bat. Oso. Konsonante bat. 7.- Emea ez dana. Mila erromatar. Mamuaren onomatopeia. 8.- Letra bat. Mitologian, Lurraren personifikazioa. Nitrogenoa. 9.- Gaukera.

GOITIK BEHERA

1.- Oinarrizko lau odol taldeetako bat. Logile. 2.- Gatzagi. Konsonante bat. Berrogeta hamar erromatar. 3.- Potolo. Zu eta ni. 4.- Birritan, dardarearen onomatopeia. Adore. 5.- Bardin. Kanpo. 6.- Trapu. Mila erromatar. Azken letrea. 7.- Oxigenoa. Uribarren.



Topau txakur arrazen zazpi izen.

C	A	L	L	Y	A	M	A	R	I
O	R	E	H	U	S	K	Y	A	N
C	T	B	O	B	T	A	I	L	A
H	S	U	B	I	A	T	E	K	O
E	B	L	I	S	N	O	L	U	A
N	O	L	A	D	I	R	U	X	T
O	S	D	E	A	T	Z	B	A	B
A	K	O	T	I	S	K	A	O	R
P	A	G	U	M	A	A	X	I	A
U	J	A	M	A	M	E	B	O	L
P	O	Z	A	R	R	A	Z	A	N
I	Z	O	L	R	E	J	A	Z	O
K	I	G	A	L	G	A	L	K	A
A	N	A	M	R	E	B	O	D	E
R	O	M	E	N	D	A	P	U	Z

AKI MI KO

Igorren Menika



Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kaltetuzkoa, herrikola

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zirkulak

946 319 008
658 195 091

GALANTA

zure barruko arropa

M. JOSE

barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galanta

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketeta

Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

IGOTZ ZULUAGA

"Arimadun bitxiak egiten doguz"

Igotz Zuluaga Galdakaon bizi dan zeanuriztarra da. Eguzkiloreko gerentea da eta bizitza osoa emon dau bitxiak egiten. BEGITU bere Bilboko dendan egon da negoziaren gainean berbetan.

Clara Luja Azpiri

Bitxi saltzaile ala bitxigina zara?

Guk familian bitxiak egiten doguz. Zuluaga familiakoak marka propioa daukagu Eguzkilore izeneko. Eguzkilore markeagaz 2007. urtean hasi ginan baina Zuluaga moduan orain dala berrogeta hamasei urte hasi ginan, bigarren belaunaldia gara. Ni Eguzkilore markearen gerentea naz.

Zelan ebatzi zenduen marka propio bat sortzea?

Eguzkiloregaz beragaz ikusi genduan Euskadi mailan tarte bat egoala marka bat aterateko moduan. Espainia mailan eta Europa mailan marka asko dagoz, baina Euskadi mailan ez egoan bitxi markarik eta pentsau genduan Eguzkilore markea ateratea. Lehenago lan handi bat egin genduan prensa kabinetean, jenteari Eguzkilore zer zan erakusteko. 2007tik 2010era izan zan lan gogorrena, eta hortik aurrera publizitatea egin genduan he-dabideetan. Orain sare sozialetan gagoz gehiago. Moda marka bat gara eta pieza barriak urtean bitan ateraten doguz, udabarrian eta neguan. Urtean zehar nobedade gehiago izaten dogu, baina katalogo bi egiten doguz: udaba-

rrikoa eta negukoa.

Non zagozie?

Gasteizen, Donostian, Bilbon, Zornotzan eta Galdakaon gagoz, bertan doguz dendak. Bost denda daukagu. Internetetik be saltzean dogu, gehien bat Nafarroara baina kanpora be bai. Europa mailan eta, Kataluniara be asko saldu izan dogu.

Zer berezi dauka Eguzkilore horrek?

Ba, jenteari ilusinoa sortzean deutso eguzkiloreak, zentzu polita dauka eta hori da gura genduan, hori da marka batek egin behar dauana. Eguzkilorea babes sinbolo bat da eta horrek bitxietan edo zintzilikario baten bere esangurea dauka. Guk "arimadun bitxiak" deitzean doguz. Ez da bakarrik bitxi bat, edozein markakoa izan daitekeana, esangura historikoa dauka, sinismenai lotutakoa.

Zelango bezeroak izaten dozue?

Guk danetik daukagu, mota guztietako bezeroak. Jente gaztea, zein heldua zein atso-agureak, edade guztietako jentea etorten da. Alde batetik ondo dago, baina arazo bat be izan daiteke guretzat, ze komunikazioa egiteko ez jatorku hain ondo. Jente guztiarengana heltzea gatxa da. Normalean markak nahiko klasifikau-



ta izaten dabe euren publikoa, baina guk esfortzu handiagoa egin behar dogu danongana ailegetako.

Krisia nabaritu dozue?

Asko. Guk asko nabaritu dogu. Adibidez lehen urrea saltzean zan eta orain zidarra bakarrik, horrek daukan erreperkusinoagaz. Lehen hiru zifratuko piezak saltzean ziran orain bi zifratukoak bakarrik. Krisiagaz akaso artikulu gehiago saltzean dira, baina inportea askoz bazuagoa da eta hori be guretzako arazoa da.

Zerbaist egiten dozue hau arintzeko?

Ez, printzipioz merkadua da agintzen dauana eta hori egiten dogu. Merkaduak zidarra eskatzen dau eta guk zidarra emoten deusaguz eta prezioak be jaisten doguz. Merkadura moldatu. Baina esfortzu handia egiten dogu jenteari geure produktua komuniketan, sare sozialetan eta egoten, eta abar. Gertakariak egiten doguz, adibidez, Exponovias-era joaten

gara eta saltsa askotan gagoz sartuta.

Gorbeia Suzien karrera patrozinau zenduen. Zergaitik?

Bueno, eguzkilorea mendiko lora bat da eta pentsau genduan gu Zeanurikoak izanda eta Zeanurin holango zerbaist urtenda ba horri babesa emotea ondo etorriko zala. Igaz izan zan, orain ez dogu diruz lagunduko, diru arazoak dirala eta. Gauzak sano gogor dagoz eta igaz ahal zana aurtan ezin da.

Zelango etorkizuna ikusten dozue?

Gu asko mobiduten gara. Kezkatzekoa da ikusten doguna; ze industria desagertuten doala eta fabrika asko zarratuten dabizala ikusten dogu. Eta nahiz eta krisia amaitu industria barik geratzen bagara hori izango da arazoa. Baina bueno, sare sozialetan gagoz sartuta pentsetan dogulako horixe dala etorkizuna eta epe ertain baten pentsetan dogu. Oraindino urte txar batzuk pasau beharko doguz.

"Moda marka bat gara eta pieza barriak urtean bitan ateraten doguz, udabarrian eta neguan"

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkala)

KÄRCHER
Banatzaile
ofiziala

• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.